

## PRENTSA OHARRA

### Bizkaiko Foru Aldundiak, BBKk eta Guggenheim Bilbao Museoak bat egin dute Museoaren XX. Urteurrena ospatzeko

Unai Rementeria Bizkaiko Ahaldu Nagusiak, Xabier Sagredo BBKko presidentek, eta Juan Ignacio Vidarte Guggenheim Bilbao Museoeko Zuzendari Nagusiak lankidetzaren hitzarmen bat sinatu dute, Museoaren XX. Urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi eta jardueraren gauzatu ahal izateko; ospakuntza-epa datorren urrian amaituko da.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta BBKk modu aktiboan hartuko dute parte inguruko arte eta kultura komunitatearekin harremana estutuko duten jardueretan; horrela, euskal kultur ehuna piztuko da.

Aldundiak eta BBK nor bere ekarpen ekonomikoa egingo du: Museoak 200.000 euro jasoko ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik, eta 100.000 euro BBKren aldetik. Diru hori jadanik pentsatutako honako proiektuetan erabiliko da; horietako hiruk Aldundiaren eta BBKren laguntza dute eta beste batek BBKrena baino ez.

- **TopARTE:** EAEko kultura eragile eta erakundeei zuzendutako lankidetzaren proiektua da, eta horren bitartez, Museoak hainbat gune dohainik erabiltzeko aukera eskaintzen du jarduerak antolatzeko. TopARTEk hiru helburu ditu: inguruko kultura eragileak bateratzea; garatzen diren proposamen eta proiektuen aberastasun eta aniztasuna transmititzea; eta ikusleei askotariko programa bat eskaintzea, hainbat diziplina hartuko dituen: musika, zinema, bideoa, dantza, performancea, antzerkia eta gastronomia.
- **Eginberri:** EAEko artista eta sortzaile gazteei zuzendutako deialdi irekia da (dagoeneko parte hartzeko epea amaitu da). Parte-hartzaileek arte plastikoetako (pintura, eskultura, instalazioa, bideoa, etab.) eta performanceko (arte efimeroa, dantza garaikidea, etab.) edozein diziplina joratu dezakete, eta jadanik hautatutako piezak datorren apirilean erakutsiko dira Museoan.
- **Lurraldeari irekitzea:** ekintza horren bitartez, Guggenheim Bilbao Museoaren erakusketak Bizkaiko udalerrira desberdinetara helaraziko dira; horretarako, Museora iristeko garraioa eta doako sarrera eskainiko zaie herritarrei urteurrenaren data jakin batzuetan. Bizkaitarrek parez pare zabalik topatuko dituzte Museoaren ateak.

BBKren laguntza besterik ez duen jarduerak **artea eta zientzia ekitaldia** izango da, aurrendari eta parte-hartzaileak; musika eta Museoaren arkitektura izango ditu protagonista, zientzia eta teknologiarekin zuzentuta. BBK izango da laguntzaile eksklusiboa.

Amaitzeko, beste ekimenetako bat XX. Urteurrena ospatzeko propio diseinatutako ikuskizuna izango da, hiritarrek esperientzia paregabe batez gozatzeko aukera izan dezaten. Ekitaldi horrek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza du, beste erakunde publiko nahiz pribaturekin batera.